



LAUDIO IKASTOLAKO ORIENTAZIO AKADEMIKO ETA PROFESIONALERAKO AZOKA

Guraso agurgarriak:

Abenduaren azken bi asteetan zehar, ikasle eta gurasoei zuzendutako Orientazio asteak ospatuko ditugu Laudio Ikastolan, bertan jarduera desberdinak gauzatuko dugularik.

Aurreko ikasturteetako esperientziari jarraituz Laudio Ikastolako Orientazio Akademiko eta Profesionalerako Azoka ospatuko dugu. Aukera ezin hobea dela uste dugu ikasleentzat beraien ondorengo ikasketen aukeraketan lagundu ahal izateko. Azoka ikasle eta gurasoei zabalik dago. Une honetako erabakiak duen konplexutasun eta garrantzia kontuan izanda, informazio desberdinak kontrastatzea ezinbestekoa dela uste dugu; ikasle batzuek, dagoeneko, parte hartzeko asmoa adierazi digute.

AZOKA

Azoka 2024ko abenduaren 11n, asteazkena, 15:30etik 18:00etara, Ikastolan, ospatuko dugu. Bertan norberak informazio pertsonalizatua eskuratzeko mahaiak izango ditugu bi eskaintza multzotan banatuta:

- Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Unibertsitate Pribatuak
- Goi Mailako Lanbide Heziketa Zikloak.

Horretarako, ondorengo gonbidatuak izango ditugu:

- Unibertsitateak: Deustu, Mondragon, Nafarroako Unibertsitatea, Begoñako Andra Mari irakasleen Unibertsitate Eskola, Bilboko Merkataritza Ganbera, Creanavarra, EUNEIZ. Agenda kontuan direla eta azken orduak baten batek presentzialki bertaratu ezin izatea gerta daiteke.
- Lanbide Heziketa: Ikastolen Elkarteak, Laudioalde, Egibide, Zaroabe; Ikaslan eta Hetel elkarteko informazioa.

Antolaketa errazteko izango dugun partaide kopurua aurretik ezagutu beharko dugu behar bezala antola dezagun. Horretarako, jarraian, parte hartzeko galdetegia bidaliko dizuegu familia eta ikasleen parte hartzea aurreikus dezagun.



HITZALDIAK

Abenduaren 9tik-19ra ikasleek goian aipatutako ikastetxeek antolatutako hitzaldiak jasoko dituzte goizeko ordutegian unibertsitate eta ikastetxeek beraien eskaintza eta antolaketa azaltzeko, eta ikasleen banakako zalantzak argitzeko.

Azkenik, ikasturtero bezala, aurten ere EHUK antolatutako Orientazio azokan parte hartuko dugu Batxilergoko 2. mailako ikasleekin. Hitzordua otsailaren 8an, Billbon, izango da.

Azoka hau zuen interesekoa izango delakoan, agur bero bat,

Batxilergoko tutoreak eta Orientatzailea.



FERIA DE ORIENTACIÓN ACADÉMICA Y PROFESIONAL DE LAUDIO IKASTOLA

Guraso agurgarriak:

Antes de las vacaciones de invierno, durante las dos últimas semanas lectivas de diciembre, realizaremos las semanas de Orientación dirigida a alumnado, madres y padres, en la que desarrollaremos diferentes actividades.

Continuando con la experiencia de cursos anteriores, celebraremos la Feria de Orientación Académica y Profesional de Laudio Ikastola. Consideramos que es una buena oportunidad para ayudar al alumnado en la elección de sus próximos estudios.

La feria estará abierta a alumnado, madres y padres. Teniendo en cuenta la complejidad e importancia de esta decisión que deben tomar, creemos que es muy importante brindarles la posibilidad de contrastar las diferentes opciones que se les presentan en la feria. De hecho, parte del alumnado ya nos ha mostrado su intención de participar en la misma.

FERIA

La feria se celebrará el **11 de diciembre de 2024, miércoles, de 15:30 a 18:00** en la Ikastola. En ella contaremos con stands en los que recibir información personalizada que se abarcarán dos tipos de oferta:

Universidades Privadas de la Comunidad Autónoma y Navarra.
Ciclos Formativos de grado superior.

Para ello contaremos con las siguientes entidades:

Universidades: Deusto, Mondragón, Universidad de Navarra, Escuela Universitaria de Magisterio Begoñako Andra Mari, Cámara de Comercio de Bilbo, EUNEIZ. Puede que por problemas de agenda alguien no pueda acudir.

Formación Profesional: Federación de Ikastolas, Laudioalde y Egibide. Información sobre Hetel e Ikaslan.

Para poder organizar de modo adecuado la feria deberemos conocer con antelación el número de participantes previsto. Para ello a continuación os remitiremos un cuestionario de participación para familias y alumnado.

CHARLAS

Desde el 9 al 19 de diciembre celebraremos la feria el alumnado participará por la mañana en charlas informativas de los diferentes



centros sobre su organización y oferta en las que se podrán plantear dudas individuales.

Finalmente, como cada curso, este año participaremos también con el alumnado de 2º de Bachillerato en la feria de Orientación de la UPV. La cita será el 8 de febrero en Bilbo.

Azoka hau zuen interesekoa izango delakoan, agur bero bat,

Batxilergoko tutoreak eta Orientatzailea.